



Turista bat Mediterraneoan

Lehen zatia

4 pertsonako taldeak egin.

Demagun 4 lagun zaretela, eta loteria tokatu zaizuela. Marokora bidaiatzea pentsatu duzue.

Gehien komeni zaizuen turismopaketea hautatu behar duzue. Horretarako, Interneten sartu behar duzue, bidaiantolatzaile onenaren eskaintza aukeratzeko.

Bestalde, bidaiagentzietako liburuxkak ere lor ditzakezue.

- Gutxi gorabehera 7 eguneko bidaia hautatu.
- Eskaintza tinta finez inprimatu.





Turista bat Mediterraneoan

Bigarren zatia

Bidaia aukeratu eta gero, saia zaitezte honako talde hauetakoren batean sailkatzen. Hau da, zuen eskaintzaren antz gehien duen taldea hautatu.

1. TALDEA. Luxuzko bidaia. Hotelek igerilekuak eta *spa* (salus per aquam) zentroak dituzte. Gainera, golfean aritzeko zelaiak daude hoteletan bertan edo inguruan. Marokoko hiri nagusiak ikustera ere joan gara. Bisita horiek auto pribatuan edo mikrobusean egingo ditugu. Jatorduak luxuzko jatetxeetan izango dira. Bidaia hegazkinez egingo dugu.

2. TALDEA. Plazereko bidaia, turista gisa. Hotelek gutxienez 4 izar izango dituzte. Igerilekua izango dute. Marokoko hiri nagusietara joango gara, autobusez edo trenez. Mantenu erdia prezioan sartuta dago. Bidaia hegazkinez egingo da.

3. TALDEA. Abenturazko bidaia. *Haimetan*, dendetan... egongo gara. Atlasera joango gara, bai eta hiri nagusietara eta basamortura ere. Bertako janaria prestatuko digun sukaldaria izango dugu. Erosketak azokan egingo ditugu. Azken gaua hotelean pasatuko dugu. Bidaia hegazkinez egingo dugu eta Marokon lur orotako ibilgailuz mugituko gara.

4. TALDEA. Gure kabuz egingo dugu bidaia. Autoz edo trenez joango gara. Ostatutan eta hango jendeak dituen logeletan egingo dugu lo. Marokoko bertako janaria jango dugu. Erosketak azokan egingo ditugu. Gidak alokatuko ditugu basamortuan ibiltzeko. Trenez, autoz eta lur orotako ibilgailuz egingo ditugu joanetorriak.



Zuen bidaia zein taldetan sartzen da?



Erantzun galdera hauei:



Interneten nolako bidaiamota dira ugarienak?



Turismoak atzerriko dibisak ematen dizkio herrialdeari. Zure bidaiako dirua norentzat izango da? Norentzat da onuragarria? Aukera hauetatik 4 hauta ditzakezu.

hoteletako jabeentzat eta enpresaburuentzat

golfzelaietako jabeentzat eta enpresaburuentzat

hoteletan lan egiten duen jendearentzat

hegazkinkonpainientzat

gidentzat eta gidarientzat

azoketako merkatariarentzat

merkatari txikientzat

herrialdeko biztanle arruntentzat



Zure bidaia egitean CO₂-kantitate handia ala txikia isuriko ote den esan eta idatzi. Zergatik?

Aukerako ariketa

Bazenekien hotelkate nagusietako enpresaburuak ez direla herrialdekoak bertakoak izaten?



Bila itzazu Interneten izen bereko hotelkateak munduan.



Turista bat Mediterraneoan

Hirugarren zatia

Zenbat ur kontsumitu dugun kalkulatzeko.



Ikus dezagun hautatutako bidaiaren arabera zenbat ur kontsumituko dugun. Bete ezazue taula. Imaginatu Marokon zaudela eta pentsatu zer egingo duzun goizean esnatzen zarenetik gauera arte.

Urkontsumoa errazago kalkulatzeko, begiratu kontsumotaulan.

Adibidez: Demagun igerilekuan 4 egunetan bainatzen zarela. Beraz:

Jarduera	Egunean zenbat aldiz	Zenbat egunetan	Litroak, guztira



Egin batezbestekoa eta kalkulatu bidaiari zenbat litro kontsumituko dituzun eguneko:



KONTSUMOTAULA


Jarduera	Litroak, gutxi gorabehera
Eskuak garbitzea (txorrota itxita dagoela)	2
Eskuak garbitzea (txorrota irekita dagoela)	18
Hortzak garbitzea (txorrota itxita dagoela)	2
Hortzak garbitzea (txorrota irekita dagoela)	15 -30
Bainatzea	200 - 300
Dutxatzea	30 (azkarra) - 80 (luzea)
Garbigailuzerbitzua	60 - 90
Hoteleko jatetxezerbitzua eta jatorduak (jatordu bat)	30
Hoteleko igerilekua erabiltzea (ura araztea...)	85
Luxuzko hoteleko spa zentroa erabiltzea	65
Bertako jatetxeko janarien zerbitzua (jatordu bat)	18
Komuneko tanga hustea (osorik)	15
Komuneko tangaren parte bat hustea (ura aurrezteko gailua du)	6
Edaria (eguneko)	2 litro/egun
Logelak garbitzea	10 litro/egun
Alokatutako autoa garbitzea	400 litro
Golfpartida. Golfean aritzeko 100 m ² ko zelaia ureztatzea.	400 litro

Guk zenbatetsitako kontsumotaula. Taula egiteko informazioa honako iturri hauetatik atera dugu:

http://mediambient.gencat.net/aca/ca//agencia/campanyes/raco/consells_practics_casa.jsp?ComponentID=65077&SourcePageID=65085#1

Aldera ditzagun:

Behatu ur-erabilgarritasunaren munduko mapari:



Font: World Resources 2000-2001, People and Ecosystems: The Fraying Web of Life, World Resources Institute (WRI), Washington DC, 2000



Behatu, halaber, taula honetako datuei::

Etxeko batez besteko kontsumoa (litro/biztanle/egun)	
Espainia	Maroko
147	50

%	Afrika	Espainia
nekazaritzan (%)	81,5	80
industrian (%)	5,5	6
etxeetan (%)	12	14

Honako datu hauetan oinarritu gara: http://webworld.unesco.org/water/ihp/db/shiklomanov/part'3/_Read'me.htm

Erantzun galdera hauei:



Maroko aberatsa ala pobrea da urari dagokionez?



Aldera itzazu zuk turista gisa kontsumitzen duzun urkantitatea eta Marokoko biztanleek kontsumitzen dutena. Nork kontsumitzen du ur gehiago?



Zure ustez, zer egin dezakezu bidai horretan ura aurrezteko? Zer egingo zenuke? Zer aldatuko zenuke?



Turista bat Mediterraneoan

Laugarren zatia

EZTABAIDA. (Ordu eta erdi)

Orain, klaseko guztion arteko eztabaida egin behar dugu.

Lehenik, prest egon behar duzue zuen iritziak azaltzeko! Testu batzuk izango dituzue lagungarri.

Bila ezazue Interneten turismo jasangarriaren definizio erraz bat.

- > Taldeka, honako galdera hauek prestatu.
- > Aukeratu taldeko ordezkaria.
- > Errespeta itzazue txandak eta hitzak.
- > Aukeratu denbora zainduko duen moderatzailea.
- > Eztabaidan, talde bakoitzak bere iritziak azalduko ditu. Azalpena eman eta gero, beste talde batek galderak egin ditzake, eta, era berean, aurkako iritziak azal ditzake.
- > Moderatzaileak galdera bakoitzetik ateratako ondorioak idatziko ditu arbelean.

Eztabaida galdera hauetan oinarrituko da:

1. Zein da gaur egungo turismoeskaintza zabalena?
2. Zer bilatzen dugu oporretan goazenean?
3. Zer arazo ekar ditzake turismoak? Eta zer onura?
4. Zer turismomota da onena herrialdeko jendearentzat? Eta ingurumenerako?

Zer egin dezakegu guk turistak garenean?



Testuak

1 Testua

Turismoak eragin ikaragarria du planetan, eta munduko industriarik handiena da. Munduko Turismo Erakundearen arabera (WTO), nazioarteko bidaietan ia bi mila milioi lortuko dira 2010. urtean (1993. urtean, 500 milioi izan ziren).

asaturismoak ingurumenkalte larriak eragiten ditu. Zientzialariek diotenez, 2015. urtean, airegarraioak eragingo du ozonogeruzaren urteko hondamendiaren erdia. Jakina denez, bidaiak guztiguztiak ez dituzte turistek egiten, baina arazoa areagotu egiten dute. Gainera, kostaldean bereziki larria izaten da airearen poluzioa, lurzorua degradazioa eta uraren degradazioa. Izan ere, askotan, gehiegi ustiatzen dira kostaldeak. Ondorio nabarmenagoak ere badira: zer diozu leku xarmagarriak benetako zabortegi bihurtzen dituzten turista arduragabeei buruz?

Ba al da beste aukerarik? Bai. Egun gero eta errazagoa da opor eta bidaiak jasangarriak aurkitzea (kontserbazio eta zaharberritze proiektuak, borondatezko lanak egiteko kooperazio proiektuak, atzerrian irakasle jardutea...). Begira ezazu Interneten: hainbat eta hainbat ideia eta aukera izango dituzu. Hala ere, kontuz! Toki batzuetan horren jasangarriak ez diren bidaiapaketeak saltzen dituzte. Lasaiagoa den beste aukera bat nahiago? Ez dago inolako arazorik. Jasangarritasuna ohiko oporretan ere aurki daiteke. Nazioarteko hotelkateen aldean, bertako ekonomia, ingurumena eta kultura errespetatu ohi dute tokian tokiko hotelek, ohea eta gosaria eskaintzen dituzten etxeek eta kanpinek, betiere ongi kudeatuta daudenean. Turismo jasangarria edo etikoa gero eta ezagunagoa da eta hori seinale ona da.

ona hemen oporretarako zenbait aholku:

Gauza batzuk aldatu egin ditzakegu, turista gisa dugun eragina murrizteko. Esate baterako:

u8232 Toki bakoitzeko biztanleei onura gehien ematen dien aukera hautatuko dut.

Txartelak eta oroigarriak erostean tratuan aritzeak esplotazioa ekar dezake.

urrez itzazu balio handiko baliabide naturalak. Ez itzazu ura eta energia alferrik erabili.

Ez itzazu kutsatzaileak erabili. Esate baterako, ez ezazu garbigarrik erabili ibaietan edo iturrietan.

raman itzazu hondakinak. Bereizi hondakin degradaezinak.

andareak haien berezko tokian utzi behar dira loratzen. Aldaxkak eta sustriak eramatea legez kanpokoa da munduko toki askotan.

agun iezaiezu tokian tokiko merkatariei eta artisauei. Ahal duzun guztietan, eros itzazu tokian tokiko oroigarriak eta artisautzako piezak.

rrespeta itzazu lurralde bakoitzeko eskubideak. Tribuen lurraldeetan, turistek lurralde pribatuan egongo balira bezala jokatu behar dute.

Saia zaitetz oporretako herrialdeari buruzko gauzak irakurtzen; herrialde horretako kultura errespetatzen lagunduko dizu eta ateak irekiko dizkizu.

Herrialde askotan hobe da arropa lasaia eta arina eramatea, arropa estua eramatea baino. Era berean, toki askotan jende aurrean elkarri muxuak ematea ez da egokia.

u8232 Beraz, l'AMERICAN SIERRA CLUB taldeak gomendatzen duen bezala: edozein tokitara zoazela ere, irudiak hartu eta soilik arrastoak utzi!

Iturria: http://www.bcn.es/agenda21/A21_text/guies/GuiaYXC.pdf. 18 orria (katalanez).

Ingeleseko http://www.bcn.es/agenda21/A21_text/guies/GuiaYXC.pdf



2 Testua

Turismoa Mediterraneoan

Turismoaren eragina benetan garrantzitsua da: kalkuluen arabera, Mediterraneoaren arroak barneturismoko 45 milioi turista eta atzerriko 50 milioi turista baino gehiago hartzen ditu ekaina eta iraila bitartean. Espainiak eta Italiak batera hartuta dituzten biztanle guztiak mendiaren eta itsasoaren arteko kostalde-lerroan pilatzen dira, eta uharte batzuetan. Mediterraneoak nazioarteko turismoaren % 35 hartu zuen 1984. urtean; 1996. urtean, eutsi egin zion joera horri, turismoaren % 30 jaso baitzuen; 183 milioi turista gutxi gorabehera.

konomiaren ikuspuntutik, turismoaren garrantzia nabarmena da, 1990ean 73.159 milioi dolarreko dirusarrerak sortu baitzituen. Zenbateko horiek Europan izandako sarreren % 53 eta munduan izandakoen % 29 hartzen dute. Barneproduktu gordinaren ehunekoari dagokionez, turismoa BPGaren % 8 izan zen Frantzian, eta % 9 Espainian. Arroaren hegoaldeko herrialdeetan, ehuneko hauek izan zituzten: Txipren eta Maltan % 27 eta % 17 hurrenez hurren; Egipton eta Tunezen % 7,1; Marokon, % 5,1; Israelen, % 4,2... Gainerako herrialdeetan ehunekoak txikiagoak izan ziren.

urismoaren presioak areagotu egin du uraren poluzioaren arazoa. Horrez gain, akuiferoak gehiegi ustiatu dira eta agortuz doaz. Gainera, gizakiok pilatzearen ondorioz, gero eta larriagoa da hondakinak sortzearen fenomenoak. 1989an, turismoeskaeraren ondorioz, 25.228 hektarea eta 40 milioi m³ edateko ur baino gehiago behar izan ziren instalazioetan. Luxuzko hotel batean, 500 eta 800 litro bitarte behar izan ziren egunean pertsona bakoitzeko. Toki turistiko horietan biztanleek behar duten urkantitatearen oso gainetik dago hori. Horren ondorioz, 144.000 tona hirihondakin solido sortu ziren, eta 24 milioi m³ hondakinur kontsumitu.

Iturria: http://www.medforum.org/documents/agenda2000/ap2_es.htm#2.10.

3 Testua

Gure herrialdean ere ura aurreztu behar dugu. Turismoa garrantzitsua da, halaber, Mediterraneoaren arroan eta beste toki batzuetan. Horregatik da horren garrantzitsua turismoa jasagarria izatea eta ura zentzuz erabiltzea.

4 Testua

Sar zaituzte honako helbide hauetan ere:

“Turismoa aberastasuna da norberarentzat, familiarentzat, komunitatearentzat eta mundu osoarentzat”. Munduko Turismo Erakundea.

http://www.medforum.org/documents/agenda2000/ap2_es.htm#2.10.
http://world-tourism.org/espanol/newsroom/campaign/turismo_riqueza.pdf



5 Testua

Artikulua

Turismoa nazioarteko jarduera ekonomiko garrantzitsuenetako bat da. Bidaien eta turismoaren munduko batzordearen datuen arabera (WTTC), turismoak % 10,7ko ekarpena egiten dio munduko barneproduktu gordinari (3.497,1 mila milioi dolar). Gainera, 2011. urtean % 11koa izatea espero da (6.958,3 mila milioi dolar). Sektore horretan, 207.062.000 pertsonak dihardute lanean eta kopuru hori munduko lanmerkatuaren % 8,2 da. Kopuruak gora egingo duela uste da, eta 2011. urtean % 9koa izatera iritsiko dela, hots, 260.417.000 langile.

Munduko Turismo Erakundearen arabera (WTO), turismoa ikaragarri hazi da, eta hazkunde horren urteko batez besteko tasa % 7,1 da. Datozen urteotako joanetorrien aurreikuspenek joera bera dute, baina uste da hazkundetasa txikiagoa izango dutela, % 4,3 ingurukoa hain zuzen.

Bilakaera horretan hainbat faktorek izan dute eragina. Alde batetik, teknologiaaroko aurrerapausoek aldaketak ekarri dituzte garraiosisteman, aireko garraioan batik bat. Bestetik, gizartean bizi izandako hainbat aldaketaren ondorioz, bidaiatzeko denbora eta dirua lortu dira. Esate baterako, langileek ordaindutako oporrak dituzte, erretiratzeko adina jaitsi egin da, biziitxaropena luzatu da eta pentsioak igo eta hedatu egin dira. Era berean, hezkuntzamaile igotzearekin batera, beste herrialde nahiz kultura batzuk ezagutzeko, bestelako esperientziak bizi izateko... grina areagotu egin da, eta horrekin turismoa bultzatu da.

Turismoari dagokionez, Europak toki pribilegiatua du munduan. Gainera, Europaren baitan, turismoa hartzen duen estatu garrantzitsuenetako bat bihurtu da Espainia, eta munduko zerrendan hirugarren geratu da, Ameriketako Estatu Batuen eta Frantziaren atzetik. Turismoaren dirusarrereri bagagozkio, bigarren tokian dago Espainia, Ameriketako Estatu Batuen atzetik (Munduko Turismo Erakundearen 1999ko eta 2000ko datuen arabera). Lanmerkatuan, 2001. urtean 2.762.230 langile izan ziren sektore horretan. Kopuru hori guztizkoaren % 18,5 da, eta, 2011. urtean, 3.704.670 izatera iritsiko dela jotzen da, hots, % 21,9 izatera.

Zenbateko horiek ikusita, politikari askok turismoa hartu dute Espainiako herri eta eskualde askoren garapen ekonomikorako eta sozialerako eragiletzat. Turismojarduera oso tresna garrantzitsua iruditu zaie, azken urteotan lortu den maila ekonomikoari eusteko.


Turismoeskaintza bideratzeko, nahitaezkoa da gaur egungo turistaren ezaugarriak ezagutzea eta zer nahi duen jakitea.

Munduan egiten diren joanetorrien kopuruak gora egin du nabarmen azken hamarkadan. Izan ere, ekonomia globalizatu egin da, merkataritza pixkanaka liberalizatu da nazioartean, berrikuntza teknologiko asko lortu dira eta informazio nahiz telekomunikaziosistemetan iraultza handia gertatu da. Faktore horien guztien ondorioz, era guztietako trukeak eta hartuemanak indartu dira herrialdeen artean.

Gaur egungo turista ez da duela urte batzuetakoa bezalakoa. XX. mendearen bigarren erdiko masaturismoa delakoak, hots, turismoa munduko jarduera ekonomiko garrantzitsuenetakoa bilakatu zuenak, beste turismomota bati egin dio lekua. Hau da, badirudi pixkanaka masifikatzen zihoazen tokietarako pakete estandar merkeak erosten zituen bidaiaria nekatzen hasi dela. Egungo turistaren ezaugarriak bestelakoak dira.

Nahiago du esperientziak bizitzea, eta askotariko gustuak eta lehentasunak ditu. Era berean, ingurumenaz arduratzen da eta oporrak tartekaturik hartzen ditu.

Horrenbestez, beste aukera batzuk sortu dira estatuko hainbat tokitan. Esate baterako, "betiko helmuga" izenez ezagutzen direnek produktua berriz definitzeari ekin diote, eta,



eguzkia hartzera eta hondartzara bideratutako ohiko turismoan, hobekuntza garrantzitsuak gehitu dituzte. Bestela esanda, eskaintza dibertsifikatu egin dute. Bestalde, beste toki batzuek, eta batez ere barnealdeko tokiek, oso aukera gutxi izan dituzte turismoaren onurak eskuratzeko. Orain, ordea, pentsatu ere egin ezin zitezkeen produktuak eskaintzen dituzte, hala nola ekoturismoa, landaturismoa, abentura-turismoa, kirolturismoa, kulturaturismoa eta abar.

Iturria: <http://www.sgci.mec.es/uk/Pub/Tecla/2002/feb15a.html>

Gehiago jakiteko:

Test bat egin nahi al duzu? Nolako turista zaren jakin nahi duzu? Sar zaitetz hemen:

http://www.medforum.org/ulixes21/cas/nomes_cas/



Bolivia eta ura izateko eskubidea

Lehen zatia

Lehen zatia. Sarrera

Egoera ezagutzeko, irakur ezazu 0 artikulua eta erantzun galderari.



Artikulua

Artikulua honako web orri honetako zati bat da itzulita:
<http://www.citizen.org/cmep/Water/activist/articles.cfm?ID=9589>

Uraren demokrazia edo kontrol korporatiboa: bizirik irauteko borroka

Gizateriari eta planetari egin diguten baliabide-lapurretarik handiena, agian, munduko ura korporatiboki kontrolatu nahi izatea izan da. Munduko kapitalisten eztabaidetan, buelta eman nahi diote urgabeziaren arazoari, eta, arazo hori konpontzeko, ura ondasun ekonomiko bihurtu nahi dute. Munduko korporazioek ondasun hori kontrolatu nahi dute, eta nazioarteko merkatuan gehien eskaintzen duenari saldu. (...)





Krisialdi guztietan sortzen da aukeraren bat. Munduko ur gezaren krisialdiak arazorik kritikoenak izan daitezke munduko justiziaren abokatuentzat. Guztionak diren ur geza eta antzeko ondasunak babesteko borroka planetak bizirik irauteko borroka da; batez ere hegoaldeko komunitateek bizirauteko borroka. Izan ere, komunitate horietan, ura pribatizatzearen aurkako borroka hil ala bizikoa da. Gure ura zuzenean eta demokratikoki kontrolatzeko mugimenduak badu indarra jende asko batzeko, hau da, enpresa handien dirugosearen aurka borroka egiteko jendea batzeko.

Mundua ur gezaren bidez dabil

Planetan urkantitate handia egonagatik ere, kantitate horren % 1en erdia baino gutxiago da erabilgarria gizakiontzat. Gainerako ura ozeanoetan eta poloetako izotzetan geratzen da. Bizitza modernoak utzi digun ondareak, hots, masiboki ureztatzeak, presa izugarri handiak eraikitzeak, hezeguneak eta basoak suntsitzeak, masiboki eraikitzeak... munduko ur gezaren iturria berehala agortzea ekarri du. Mila milioi pertsona inguruk ez dute ur garbirik, eta 2,5 mila milioi pertsonak ez dute zerbitzu egokirik hondakinuretarako eta saneamendurako. Beraz, urtero 2.112.000 pertsona hiltzen dira –haurrak, gehienak–, beherakoaren eta koleraren antzeko gaixotasunen ondorioz.

Mehatxu horrez gain, munduko biztanleriak gora egiten jarraitzen du, eta urtean beste 85 milioi pertsona gehiago jaiotzen dira. Gainera, pertsona bakoitzak erabiltzen duen urkantitatea bikoiztu egiten da hogeitun urtean behin. Uregarri asegaitz horren atzean, batez ere nekazaritza industrial eta produktuen industria daude. Erabilitako uraren % 65 eta % 25 kontsumitzen dute, hurrenez hurren. Nolanahi ere, gizateria nahitaezko baliabide hori ustiatu izanaren prezioa ordaintzen ari da. Egungo garapenak bere horretan jarraitzen badu, 2020. urtea baino lehen munduko biztanleen bi herenek ez dute izango ur garbia lortzeko aukerarik.

(...)

Planetako miseriatik lortutako onura

Korporazio transnasionalek onura itzelak lortzeko aukeratzat hartu dute urgabeziaren krisialdia. Gizakiok bizitzeko nahitaezko dugun elementu mugatu hori korporazioek kontrolatzen badute, aberastasun handia lortzen hasiko dira. Ura da petrolio berria. 2001. urtean, urzerbitzuen industriak trilioi bat dolar inguruko dirutza eskuratu zuen, eta industria hori korporazio gutxi batzuen menpe baino ez zegoen. Dirutza hori botikaindustriak eskuratutakoa baino askoz ere handiagoa izan zen, petrolioindustriatik lortutako interesen ia % 40. "Ura da inbertitzaile pribatuek gainditu beharreko azken muga"; hala esaten du Berreraikuntza eta Garapeneko Europako Bankuko Johan Bastinek.

Erantzun galderei. Testua lagungarria izango zaizu erantzunak aurkitzeko.

1. Zer erlazio dago uraren kalitatearen eta osasunaren artean?
2. Ura bihur al daiteke enpresa pribatuek ustiatutako baliabide?
3. Denborak aurrera egin ahala, urkontsumoa igo ala jaitsi egin da? Azaldu zergatik dagoen joera hori.



Bolivia eta ura izateko eskubidea

2. zatia. ROLJOKOA

2^a parte. Juego de rol

Roljoko bat egingo dugu.

Horretarako, prestatu egingo gara. Roljokoa Cochabamban gertatutako jazoera batean oinarrituta dago. Orain zuek bizi beharko duzue egoera hura. Hitzaurre bat eta pertsonaia bakoitzarekin loturiko testu batzuk emango dizkizuegu, zuen iritziak eratzeko.

Jokoaren argibideak

- ✓ Egin itzazue 3 edo 4 pertsonako taldeak. Guztira 7 talde behar dira.
- ✓ Talde bakoitzari zuen pertsonariari buruzko informazioa emango dizuegu, zuen iritziak defendatzeko.
- ✓ Jokoa zuzentzeko edo bitartekarilanak egiteko, norbait behar da (irakaslea, helduren bat...). Horrek denbora zainduko du.
- ✓ Zuen eginkizuna izango da zuen iritzia defendatzea eta, ahal izanez gero, beste taldeekin akordio bat lortzea.
- ✓ Eztabaida orokorra hasi aurretik, zuen artean hitz egin dezakezue, taldeen arteko loturak edo aldez aurreko akordioak lortzeko.

Guztionezako sarrera. Egoera.

Cochabamba. Boliviako eskualdea.

Cochabamba hiria Rocha ibaiaren ertzean sortu zuen Sebastian Barba de Padillak 1574ko urtarrilaren 1ean. Cochabamba Boliviako *lorategihiria* da. Herrialde osoko klimarik egonkorrena du. Cochabamba hazi eta modernizatu egin da. Lan handiak egin dira, hala nola Cochabambatik Santa Cruzarako errepidea, petrolio-findegia, La Angosturako presa, Corani energia elektrikoaren zentrala, zementulantegia, Chaparera doan errepidea, Orurorako bide asfaltatua, Cochabamba-Santa Cruz energiasarea... Lan horiek guztiak azkenaldian egin dira.

Cochabambari buruzko informazio gehiago jasotzeko: <http://www.gbtbolivia.com/es/cochabamba/>

Uraren borroka Cochabamban

Munduko Bankuak Latinoamerikarako bultzatu dituen pribatizaziopolitiken baitan, Boliviako gobernuak enpresa transnazional bati eman zion 1999an Cochabamba hiriko eta inguruko ur guztia kudeatzeko eta banatzeko eskubidea. Enpresa hori Bechtel izan zen, Bolivian bertan Aguas del Tunari izena duena, hain zuzen.

**Iruzurrak: Cochabamba, Bolivia**

(...) Boliviako gobernuak Aguas del Tunari enpresarekin 40 urterako kontratua hitzartu zuen 1999an. Kontratu hori oso onuragarria izan zen konpainiarentzat. Uraren tarifak berehala igo ziren; batzuetan % 100etik % 200era bitarte. Kolpe latza izan zen nekazari txikiarentzat eta jendearentzat. Hileko gutxieneko soldata 100 dolar zen herrialde batean, familia askok 20 euro edo gehiago ordaintzen zuten uragatik. Uraren prezioei aurre egin ezinik, herritarrek kanpaina bat jarri zuten martxan, urkonpainia pribatua herrialdetik botatzeko.

(...)

Iturria: http://www.citizen.org/cmep/Water/cmep_Water/reports/bolivia/articles.cfm?ID=9208

Pertsonaien zerrenda. Jokodinamizataileak banatu behar ditu.

Prestakuntza amaitu eta gero hasten da jokoak. Jokodinamizataileak taldeak aurkeztu, jokoaren denbora kontrolatu (40 minutukoa izan behar du) eta arauak errespetarazi behar ditu.

PERTSONAIA: MUNDUKO BANKUA: A taldea

Munduko Bankua zarete, munduko erakunde boteretsuenetako eta ospetsuenetako bat. Gobernuak, oro har, aintzat hartzen dituzte zuen gomendioak.

Cochabamban uraren kudeaketa pribatizatu izana defendatu behar duzue, herrialdearen kanpozorrorako irtenbidea eta herrialdea garatzeko bidea izan baitaiteke. Gainera, Boliviako gobernuari lagundu behar diozue, pribatizazioari tinko euts diezaion.

Gobernuarekin, multinazionalekin eta enpresa handiekin baino ez duzue hitz egiten.

Irakur ezazue INFO 1.

Zuen tesiak eta iritziak defendatzeko balioko dizue.

PERTSONAIA: BOLIVIAKO GOBERNUA. B taldea.

Boliviako gobernuak zarete, hau da, ekonomiaministroak, presidentea, defentsaministroa eta gobernuko goikarguak dituzten funtzionarioak. Zuen herrialdea munduko pobreenetakoa da. Zuentzat benetan zaila da kanpozorra ordaintzea. Munduko Bankuarekin eta Nazioarteko Diru Funtsekin akordioa duzue. Maileguen truke ordaindu beharreko dirukopurua murrizten joatea adostu duzue, betiere haien gomendioei jarraituz gero. Zuen herrialdea aberatsa da baliabideei eta urari dagokienez. Munduko Bankuak uraren kudeaketa, hau da, horniketa, kanalizazioak... pribatizatzeko gomendatu dizute. Horretarako, komeri da multinazional batekin kontratua sinatzea eta hala egin duzue. Orain arte kudeaketa publikoa zen, eta, egia esan, zailtasun ekonomikoak handiak izan dira. Horrek dirua emango dizue txirotasunetik irteteko eta zorra ordaintzeko.

Munduko Bankuarekin, multinazionalekin eta enpresa handiekin hitz egin dezakezue. Jendearekin ere hitz egin dezakezue, antolatzen bada eta ordezkari batek guztion



izenean hitz egiten badu. Jendeak zuekin hitz egin nahi badu, eskaera bat bete behar du eta gobernuko funtzionario bati eman. Txanda iritsi arte itxaron behar dute.

Irakur itzazue INFO 1 eta INFO 2.

Zuen tesiak eta iritziak defendatzeko balioko dizuete..

PERTSONAIA: MULTINAZIONALA ETA ENPRESA HANDIA. C taldea.

Multinazional eta enpresa handi bat zarete. Enpresa horren jabeak eta akziodun garrantzitsuak. Zuen enpresa mundu osoan zabaldua dago. Enpresaren egoitzak mundu osoan daude. Enpresa lehiakorra da eta kontaktu garrantzitsuak dituzue, batez ere Munduko Bankuarekin. Uraren alorrean espezializatu zarete, hau da, kanalizazioetan, horniketetan, obra hidraulikoetan, presetan... Zuen helburua da urteamaieran onurak ateratzea eta enpresa gero eta handiago bihurtzea. Oso eraginkorrak eta serioak zarete. Cochabamba eskualdeko ura kudeatzeko hitzarmena lortu duzue. Ikusi duzuen lehen gauza izan da proiektua ez dela ekonomikoki bideragarria. Beraz, uraren prezioa % 150 igo duzue. Uraren faktura lehen zena halako bi eta erdi gehiago izango da. **Jokoa hastean, komunikatu bat egin behar duzue lehenbailehen, jendeari tarifa igo duzuela esateko.** Munduko Bankuarekin eta gobernuarekin hitz egin dezakezue. Jendearekin ez duzue inoiz ere zuzenean hitz egiten. Aldaketen berri eman besterik ez duzue egin behar.

PERTSONAIA: NEKAZARIAK. D taldea.

Nekazari minifundistak zarete. Ur ugari duen eskualde batean bizi zarete, baina uzta gutxi batzen duzue lursail txikiak dituzuelako, uztengatik gutxi eta gaizki ordaintzen dizuete eta zailtasun handiak dituzue aurrera egiteko, hau da, botikak erosteko, produktu freskoak erosteko... Zaila egiten zaizue eguneroko bizitza aurrera ateratzea. Esan dizuetenez, orain ura atzerriko konpainia baten esku dago eta ez da udalerrian kudeatzen. Beldur zarete gauzek okerrera egingo ote duten... Beldurra diozue uragatik gehiago ordaindu behar izateari. Zorionez kooperatiba batean zaudete eta maiz elkartzen zarete.

Auzoelkarteekin, gobernu kanpoko erakundeekin, adituekin, gobernuarekin eta uraren konpainiarekin hitz egin dezakezue.

Irakur itzazue INFO 2 eta INFO 3.


Zuen tesiak eta iritziak defendatzeko balioko dizuete.

PERTSONAIA: AUZOELKARTEAK. E taldea.

Gizonezkoek eta emakumezkoek osatutako auzoelkartera zarete. Hiriaren erdigunetik kanpo bizi zarete, etxe apaletan. Entzun duzue etxera eta komunitatearen iturrira urkorrontea eramaten duen hodi apurtua ez dutela datozen hilabeteotan konponduko, orain ura atzerriko konpainia baten esku baitago, eta ez baita udalerrian bertan kudeatzen. Oso kezkatuta zaudete, emakumeak batez ere, ura ez baita osasunetxolara iritsiko, eta, han zauriak sendatzeaz gain, emakumeak erditu egiten direlako.

Auzoelkarteekin, gobernu kanpoko erakundeekin, adituekin, kabildoarekin, gobernuarekin eta uraren konpainiarekin hitz egin dezakezue.

Ez duzue inolako informaziorik. Hiritik kanpo bizi zarete eta zuetako askok ez duzue ikasketarik. Ez dakizue non galdetu. Beste taldeekin hitz egin behar duzue eta saia zaitezketen zuen kabuz zerbait jakiten.

**PERTSONAIA: ADITUAK. F taldea**

Adituak zarete (abokatuak, ingurumenarloko adituak, idazleak...). Elkar ezagutzen duzue eta zuetako askok gizartejustiziaren alde lan egiten duten erakundeetan (ekologiaren alorreko gobernuz kanpoko erakundeetan, garapenaren aldeko gobernuz kanpoko erakundeetan, sindikatuetan, bestelako elkarteetan...) parte hartzen duzue edo lan egiten duzue.

Ongi dakizue zer gertatu den eta benetan haserre zaudete. Ez da bidezkoa. Badakizue ezin zaretela ezer egin gabe geratu. Lehenik eta behin jendeari zer gertatu den azaldu behar diozue, zer gertatzen ari den salatu behar duzue eta gobernuarekin hitz egin. Kooperatibak ongi ezagutzen dituzue eta auzoelkarteekin ere harremanak izan dituzue. Gobernuko goikarguren bat ere ezagutzen duzue. Gainera, beste aditu batzuekin eta atzerriko taldeekin harremanak dituzue. Gobernuarekin, uraren konpainiarekin, baserritarkooperatibarekin eta auzoelkarteekin hitz egin dezakezue. Irakur itzazue INFO 3, INFO 4 eta INFO 2.

PERTSONAIA: NAZIOARTEKO IKUSKATZAILEAK. G taldea.

Nazioarteko ikuskatzaileak zarete; kazetariak gehienak. Taldeen arteko elkarrizketak entzun ditzakezue eta gertatzen ari denaren ikuskatzailetzat jokatu behar duzue. Adi egon beharko duzue, gertatutakoari buruzko zuen bertsioa eman behar baituzue.

Irakur itzazue INFO 2 eta INFO 8.

Ezin duzue inorekin hitz egin.

Jokoa hasi aurretik, talde bakoitzak bere "jokotxartela" bete behar du.

ROLJOKOAREN TXARTELA

NOR ZARETE?

Zer nahi duzue?

Zein iritziren alde zaudete?



Besteak konbentzitzeko erabiliko dituzuen irizpideak.
Ongi arrazoitutako irizpideak prestatu!

Jokoa amaitu eta gero. Guztion artean, eman ezazue jokoari buruzko iritzia.
Azaldu elkarrizketen emaitza:



Bolivia eta ura izateko eskubidea

3 zatia

3 zatia. Cochabamban gertatu den benetako istorio bat.

Roljokoa egin eta gero, irakur itzazue INFO 5,6,7 eta 9, azkenean Bolivian zer gertatu zen jakiteko. Gero, elkarrekin, galderari erantzun.

Sar zaitetz Interneten, herriak ura babesteko egindako borrokari buruzko informazio gehiago izateko. Interneten sartu aurretik, ordea, hautatu bilaketak egiteko hitz gakoak: ura izateko eskubidea, Cochabamba... Gero, egin bilaketa gehien interesatzen zaizun hizkuntzan (bilaketa aurreratuak egiteko atalean aukera dezakezue hizkuntza). Hortik Interneten bilaketak egitera joango gara (Google edo Yahooren antzeko bilatzaileak erabil ditzakezue). Irudiak edo informazio gehigarria atera dezakezue.

- Komeni da irudiak eta abar tinta finez inprimatzea, alferreko gasturik ez egiteko.
- Era berean, orriak itzul ditzakezue itzultzaile automatikoez baliatuz.

Erantzun galdera hauei:

Zer gertatu zen Cochabamban 2000. urtean?

Nork pribatizatu zuen ura eta zergatik?

Zer egin zuen jendeak eta herritarrek?



Irakur itzazu urari buruzko nazioarteko deklarazio hauek:

http://www.wateryear2003.org/es/ev.php-URL_ID=4087&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html
<http://www.laredvida.org/>

Esaten da ura giza eskubideen aurreiazko baldintza bat dela. Zergatik esaten da hori? Zure ustez, hori esatea zentzuduna al da? Arrazoiak eman.

INFO 1

Honako testu hau webgune honen egokitzapena da:

http://www.cedib.org/pcedib/?module=displaystory&story_id=11799&format=html

Uraren pribatizazioa eta Munduko Bankua. Egilea: Raul A. Wiener.

Munduko Bankuak beti esan izan du lurreko edo lurpeko beste produktu bat balitz bezala hartu behar dugula ura, ahalik eta jende gehienak erabil dezan. Hau da, kobrearekin, urrearekin edota petrolioarekin egiten den bezala ustiatu behar da ura. Gainera, ustiapena kapital pribatuen esku utzi behar da, eta irabaziak lortu behar dira, kapital pribatuek inberti dezaten.

Telebistan azaltzen den iragarki batean, Munduko Bankuak haur batzuen aurpegia eta ahotsa hartzen du, eta era xaloan esaten du bere ametsa dela txirotasunik gabeko mundu bat lortzea. (...)

Munduko Bankuaren beste amets bat da (...) Lurreko biztanle guztiek ur garbia lortzeko aukera izatea, guztion bizikalitatea hobetzarren.

Egun, planetaren hegoaldeko biztanle batek egunean 20 litro ur kontsumitzen ditu batez beste. Ameriketako Estatu Batuetako biztanle batek, 600 litrotik gora. Gaur egungo kontsumo-abiaduran jarraitzen badugu, datozen 20 urteotan 3 mila milioi pertsona baino gehiago edateko ura zuzenean lortzeko aukerarik gabe geratuko da. Gainera, aurreikusten da horniketaiturriak eskuratzeko borrokak areagotu egingo direla. Borroka horiek izan daitezke orain arteko gerrarik beldurgarrienak. Hori guztia saihesteko, bi irtenbide daude: (a) Planetaren iparraldeko kontsumoa zentzuzko neurri murriztea. Horri esker, moteldu egingo litzateke erreserbak desagertzeko egungo joera, eta, gainera, ura banatuko genuke hegoaldeko herrialde pobreekin. (b) Uriturriak areagotzea eta era antolatuan banatzea, lapurretarik egon ez dadin.

Zer egiten du Munduko Bankuak? Zer proposatzen du (...)? Pribatizazioak bultzatzen ditu.

Munduko Bankuak beti esan izan du lurreko edo lurpeko beste produktu bat balitz bezala hartu behar dugula ura, ahalik eta jende gehienak erabil dezan. Hau da, kobrearekin, urrearekin edota petrolioarekin egiten den bezala ustiatu behar da ura. Gainera, ustiapena kapital pribatuen esku utzi behar da, eta irabaziak lortu behar dira, kapital pribatuek inberti dezaten

Hala ere, kapitalek baldintza bat jartzen dute urustiategi berrietan inbertitzeko orduan, ustiategi zaharrak ere haien esku izatea, alegia. Beraz, Munduko Bankuaren iritziz, urzerbitzuak ematen dituzten enpresak ere pribatizatu egin behar dira. Bide batez esan dezagun, azkenean hori izaten dela gakoa eta ez inbertsio berriak egitea.

Kapitalari dagokionez, epeak jartzen dituztenean ez da aintzat hartzen herrietan ura noiz amai daitekeen. Aitzitik, denbora epe luzeenean ahalik eta irabazi gehien nola lor daitezkeen hartzen da kontuan, betiere inbertsiokostu txikiena eta kapitalarriskurik txikiena hartuta.



Horregatik hitz egiten dugu ur gehiago izateari buruz. Jasotzen dugun erantzuna izaten da urenpresak saldu behar ditugula (...).

Munduko Bankuak, ordea, badu bere erantzuna. Ura azken erabiltzaileei prezio errealean saltzea dakar pribatizazioak.

Zein da prezio erreala? Ez da ura ateratzea eta banatzea kostatzen dena, baizik eta merkatua ur horregatik ordaintzeko prest dagoena. Gainera, aintzat hartu behar da merkatuan gero eta ur-gabezia handiagoa dagoela, ez dagoela aukerarik ura beste ezerekin ordeztzeko eta eskaintzak monopolikoak izaten direla. Era berean, Munduko Bankuak dioenez, epe luzean munduan urmerkatua egongo da, petrolioarekin gertatu den bezala. (...)

Etorkizunean, Ameriketako Estatu Batuetako, Europako edo Japoniako enpresa batek edo familia batek ordaindu egin beharko du egun kontsumitzen duen urkantitatea kontsumitzen jarraitzeko. Oso ongi. (...)

(...) Pribatizazioa justifikatzeko hauxe diote gobernuek:

- Iparraldeko herrialdeei armak erosteko eta kanpozorra ordaintzeko lehentasuna duen kutxa fiskalik ez dagoenez, irtenbidea pribatizazioa da. Liman milioi batek eta herrialde osoan halako bik baino gehiagok ez badute urrik, kapital pribatuari dirua jartzeko esan eta kito.

Munduko Bankuaren ikerketa-kopuruak azaltzen dira han eta hemen, eta ematen diguten mezua da estatuek, eskualdeek eta udalerriek ezin dutela haien gain hartu uraren arazoa.

Horrela, badirudi pribatizazioa atzerriko diruaren bidez lortutako bedeinkapena dela eta oso ongi heldu behar diogula aukera horri.

Ez dago munduko pribatizazioplanik; gaizki dabilzan enpresa nazionalak daude eta premia handia dute norbaitek pribatizatzen. (...)

Ikus ditzagun zenbait datu:

- Edateko uraren zerbitzua emateko enpresak 80ko hamarkadaren bigarren erditik hona hasi dira pribatizatzen, herrialde garatuetan (Erresuma Batua) eta azpigaratuetan.

- 1994. urteaz geroztik, Amerika osoan aritu dira eztabaidatzen zerbitzu-merkatuaren eta uriturri handiak irekitzearen inguruan: Kanada, Amazonia, Patagonia... Ameriketako Merkataritza Askeko Eremuaren negoziazioetan (ALCA) aztertu dituzte eremu horiek guztiak.

- 1995ean, eta Munduko Merkataritza Antolakundeak bultzaturiko konpromisoen baitan, Zerbitzuen Merkataritzarako Akordio Orokorra sinatu zuten (AGCS). Akordio horretan hainbat erabaki hartu zen, hala nola oinarritzko zerbitzuak liberalizatzea, zerbitzuei buruzko arauak kentzea eta zerbitzuak pribatizatzen prozesua ezartzea. Horren ondorioz, uraren, energiaren, telekomunikazioen, osasunaren, hezkuntzaren eta abarren merkatuak sortzeko abiapuntua ezarri zuten.

(...)

INFO 2

Iturria: http://news8.thdo.bbc.co.uk/hi/spanish/business/barometro_economico/newsid_4521000/4521238.stm

Boliviak Hego Amerikako herrialderik pobreena izaten jarraitzen du.

Eta ez hori bakarrik. Munduan pobreenak diren eta zorrik handienak dituzten 18 nazioen artean dago. Munduko Bankuarekin eta Nazioarteko Moneta Funtzarekin hitzarmena adostu zuen kanpozorra murrizte aldera.

Andeetako herrialde txiki honetan, biztanle bakoitzeko barneproduktu gordina 2,460 dolarrekoa da urtean. Biztanleriaren % 67 txirotasunaren atalase-mailaren azpitik bizi da. Hau da, ez dira iristen kontsumoaren oinarritzko oinarria betetzeko gutxienez.

Txirotasunaren artean, nekazariak (% 79) eta gizarte indigenetako kideak daude. Azken talde hori izan da, hain zuzen ere, historikoki botereegituretatik kanpo geratu dena.

Ezberdintasun itzela

Txirotasunaren arazoez gain, ezberdintasun arazoak daude. Munduko Bankuak adierazi duenez, inguruko herrialdeen artean, Bolivian dago alderik handiena aberastasuna banatzen.



INFO 3

Testu hau honako webgune honen egokitzapena da:
http://www.cedib.org/pcedib/?module=displaystory&story_id=11799&format=html

Uraren pribatizazioa eta Munduko Bankua. Egilea: Raul A. Wiener.

Beste urpribatizazio batzuk oso gaizki dabilta.

Gaur egun, munduan, urzerbitzuaren % 5 baino ez dago konpainia pribatuen esku. Gainera, pribatizazio horietan, beste edozein sektoretan baino porrot gehiago gertatu dira: Cochamban, Buenos Airesen, Atlantan, Manilan... Toki horiek guztiak Munduko Bankuaren eredu-esperientziak izan ziren, baina enpresak bertan behera geratu ziren, biztanleek ez baitzituzten ez tarifak, ez arau berriak onartu. Gainera, egoera horietan, transnazionalak kalteordain oparoak eskatzeko asmoa erakutsi dute.

Duela gutxi jakin dugu La Libertaden, Pacasmayo probintzian, uraren kudeaketa enpresa pribatu bati eman, eta, azkenean, itzuli egin behar izan zutela emakida. Eskaintako inbertsioak ez zituzten bete. Hedadura ez zen hazi. Zerbitzua lau ordukoa izatetik ordubeteko izatera murriztu zuten eta abar. Udallerriak berreskuratu eta gero, enpresa hobetzen hasi zen berehala. Kasu hori sakonki aztertu beharra dago.

Pribatizazioa iruzurra eta gezurra dela esateko arrazoiak bat honako hau dugu: munduan, urzerbitzutan inbertitzen duten enpresa pribatu gutxi daude. Gehienak Europakoak dira, eta Ameriketako Estatu Batuetako batzuk ere badaude. Oso enpresa boteretsuak izan arren, haien gaitasun ekonomikoarekin ezin zaio erantzun Munduko Bankuaren eta antzeko erakundeen ikerketek hautemandako beharren zati txiki bati besterik. Beraz, ez da nahikoa datozen 20 urteotako krisialdiari aurre egiteko.

Orduan, nola proposa daiteke hori irtenbidetzat, irtenbidea izateko gaitasunik ez badu?

Hemen azalpen txiki bat eman dezakegu. Objektiboki, Munduko Bankua enpresa horientzat lanean ari da, eta kopuru orokor horiekin egoera dramatizatu egiten du, enpresek inbertsio jakin batzuk gauza ditzaten.

Badirudi Munduko Bankuak, aurpegi heldua erakusten duenean, amets bat duela. Amets hori da enpresak munduko ur-merkatuaz jabetzea, eta, gero, hortik zabaltzen hastea, eta toki batzuetan irabazten dutenarekin beste toki batzuetan negozioak irekitzea, edota beste sektore batzuetako inbertitzaileak auzi honetan sartzea.

(...)

Tarifak askoz ere garestiagoak izango direla susmatzen dugu. Izan ere, gaizki dagoen edozein enpresa berehala has daiteke hobetzen, prezioak hiru aldiz igotzen baditu, eta monopolio izateagatik ordaintzera behartzen badu. Hori bai, hori udalpresek edo Toledoko gobernuak egiten badu, plazan akabatuko lituzkete. Nolanahi ere, hain ustez, zailagoa da hori transnazionalekin egitea. Susmatzen dugunez, elkarri loturik joan beharrean, ura saltzeari buruzko ideiak eta ingurumena zaintzeari buruzkoak gero eta urrunago daude. Izan ere, emakidadunek diote edateko ura banatzea besterik ez dela haien lana. Beraz, hori esaten badute, pentsatu behar dugu ur garbia eta ona ematen duen ingurumena kaltetzen ari direla; herritarren kalterako.

Susmatzen dugunez, gure diruarekin pribatizazioa justifikatzen duten inbertsioak egingo dituzte. Susmatzen dugunez, hau da, badakigunez, pribatizazioak monopolio handiak sortuko ditu, nahiz eta gu ez ohartu oso ongi horrek esan nahi duenez. Gure ustez, Sedapal pribatizatuta bigarren Telefonica bat izango dugu, eta botere politiko handia izango du. Gainera, badirudi probintziakoak eskualde bakoitzeko enpresa garrantzitsuenak izango direla.

Susmatzen dugunez, demokrazia galduko dugu, uraren zerbitzuaren gaia ez baita izango agintariekiko eztabaida bat. Horren ordez, txostenak izango ditugu, enpresa pribatu baten bulego hotz batean.

Susmatzen dugunez, beste langilemultzo batek lanpostua galduko du, eragile pribatuek kostuak murriztu beharko baitituzte.

Susmatzen dugunez, bide horretan sartzen bagara, oso zaila izango da atzera egitea. Izan ere,



era guztietako presioak, salaketak, epaiketak eta abar egongo dira, pribatizazioa bertan behera lagatzeko ausardia zigortzeko.

(...)

Susmatzen dugunez, atzerriko enpresa batek edo gehiagok gure edateko uriturriak kudeatzen dituenean, askoz ere errazagoa izango da baliabide hori kanpoko erosleei saltzea. Guztiz liluragarria! Azpiegituren zati handi bat inportatua duen mundu garatua horretarako ari da prestatzen urte batzuetatik hona. Esportatzaile fidagarriak bakarrik falta dira.

Mesfidantza handikoak al gara?

Ez dugu uste. Hogeita hamar urte daramatzagu era guztietako ekintzak jasaten: errezeta neoliberalak, Washingtongo akordioa, tarifa-aldaketak, merkatuak liberalizatzea, erreformak eta pribatizazioak egitea... Urte horiek nahikoa izan dira gaur egun ditugun ametsen aurrean begiak erne izan ditzagun.

Beharrezkoa den guztietan nabarmenduko dugu gure arazoak ez datozela bat ekonomia garatuek dituzten arazoekin. Batzuetan, gainera, guztiz aurkakoak dira. Munduko iparraren eta hegoaren arteko akordioa gauzatu behar da jokoaren arauak aldatzeko, hots, kontserbazioa, babesak, justizia, berdintasuna, demokrazia eta elkartasuna lortzeko. Akordio horren helburua ezin da izan xahutzera, kutsatzera, ezberdintzera, inposatzera, interesak epe motzera izatera ohitzea. Izan ere, interes horiek aberatsek dituzte, eta Munduko Bankua haientzat ari da lanean .

Dagoena aldatzea da gure ametsa. Eta hori egiteko badugu tresna bat, gure baliabide naturalak eta jendearen lana.

(...)

Informatzea, herritarrei egia esatea.

Demokratizatzea: gai garrantzitsuetan, gizartearen iritzia lehentasuna izatea da.

INFO 4

Artikulu osoa hemen duzu: <http://www.adital.org.br/site/noticia.asp?lang=ES&cod=18882>

Danielle Mitterrand Bolivian

Egilea: Elizabeth Peredo Beltrán. Solón Fundazioa. Bolivia.

Adital: "Berriz ere ikusi ahal izan dugu herrialdeen arteko elkartasuna eta ura izateko eskubideen aldeko borroka, Danielle Mitterrand anderea eta zenbait ordezkari Boliviara etorri direnean (...)"

Danielle Mitterrand, giza eskubideen arloko militantea

"Herrialdeetan, irabazien eredu neoliberalaren eta merkantilismoaren aurkako jarrera piztu da eta horrek ez du atzera bueltarik. Herriak konturatu egin dira eredu hori ez dela bateragarria giza eskubideekin eta bizitzarekin berarekin" dio Danielle Mitterrandek, begietan dirdira zoragarria duela.

Duela 81 urte jaioa, Daniellek karisma eta energia paregabeak ditu (...). 17 urterekin, faxismoaren eta nazien okupazioaren aurkako frantziar erresistentziako kide izan zen. 1986. urtean, *France Libertés Fondation Danielle Mitterrand* sortu zuen, batez ere bakearen kultura bilatzeko eta giza eskubideei erabateko bultzada emateko. Danielleren ekintzak eredu neoliberal eta pentsamendu bakarra ezbaian jartzera bideratuta daude. Haren ustez, pribatizazioaren porrotak badu zergati bat: *"eredu neoliberalaren eskalaren oinarria da produkturik gabeko etekin txiki batetik errentagarritasuna ateratzea, ahaleginik gabe, espekulatuta (...). Diru hori espekulatiboa da eta ez du balio errealik; eta ezberdintasunak eta gatazkak sortzen ditu (...). Diruaren diktadura bizi dugu, merkantilismoaren agintaritzak. Logika suntsitzaile hori aldatu egin behar dugu. Gizartean, benetako produktuak lortzeko soilik behar dugu dirua, gizartebizikidetzaren oreka lortzeko. Hori da gure helburua."*



France Libertés Fondation Danielle Mitterrand fundazioak lehentasuna ematen dio urari. Gainera, laguntza ematen dio tokian tokiko ekintza ugari, kudeaketa publikoaren bidez ura kudeatu ahal izateko:

Urak ASKEA izan behar du; urak munduarena eta herritarrena izan behar du. Beraz, ezin du estatuak, komunitateak, enpresak... hartu. Izan ere, ura ezin da salgai izan. Hori dela eta, ura GIZATERIA OSOAREN ONDASUN izendatu behar da, eta berdintasunez eta zuzentasunez banatu behar da. EDATEKO ura lortzeko aukera oinarritzko giza eskubidea da. Egun, edateko eta kalitatezko ur gutxi dago munduan. Hori dela eta, une honetantxe ekin behar diogu lanari. Ez dugu onartzen "kutsatzen duenak ordaintzen du" iritzia, horrek ez baitu arazoa konpontzen. Proposatzen dugu munduko armamenturako urteko aurrekontua % 1 murriztea 15 urtez, mundu osoan ur garbia lortzeko lanak finantzatzeko. Urak DOAKOA izan behar du. Ura guztiok izan behar dugu, eta ez soilik ordain dezaketenen. Gure Fundazioak proposatzen du herritar bakoitzak, jaiotzen denetik, eguneko 40 litro ur doan izatea. Proposamen hori bideratzeko ikerketak egin ditugu. Interesaturik dauden guztien esku jarri ditugu.

“Neurri handiko katastrofearen atalasean gaude, baina oraindik katastrofe isila da eta ez diogu behar beste erreparatu. Munduko biztanleriaren herenak, hots, mila milioi pertsonak baino gehiagok ez dute aukerarik edateko ura lortzeko. 2025. urterako, gutxi gorabehera, gizateriaren bi heren egoera horretan egongo da. Onartu behar dugu munduko biztanle askok, baita Europan bertan ere, ez dutela jada ura lortzeko aukerarik. Beraz, benetako bidegabekeria dugu aurrean. Horregatik, uraren eskubideen eta edateko ura izateko eskubideen aldeko lana lehentasunak dira.”

Gai horretaz arduratuta, Danielle Mitterrandek Uraren Munduko Kontratua sinatu zuen 1998an, Mario Soaresekin, Riccardo Pettrellarekin, Vandahna Shivarekin eta beste ekintzaile batzuekin batera. Hori izan zen ura oinarritzko giza eskubidetzat hartzeko abiapuntua. (...)

Bolivia

Bolivian urte horietan hasi ziren ura merkantilismoaren aurka babesteko beste hainbat prozesu: ureztatze-erakundeak, eta Cochabambako hegoaldeko goiordokietako indigenen eta nekazarien erakundeek munduari erakutsi diote urmerkatariek zernolako bidegabekeriak eta mehatxuak ekartzen dituzten. Eredu horren aurka munduan sortzen ari den fenomeno islatzen du horrek. Herriek uraren pribatizazioaren aurka egindako erresistentziaren sinbolo bilakatu da Cochabambako kasua. Gainera, iparreko eta hegoko ekintzaileak bateratzeko aukera eman du.

Ekimen horri esker, munduko toki guztietan lortu dira bazkideak eta aldeko partaideak. Beraz, mundu osoko gizon eta emakume borrokalariak elkartu direnez, indarrak batu dira helburu bera lortzeko, hau da, beste mundu bat eraikitzeko, hots, bidezkoa, elkartasunezkoa eta errespetuzkoa den mundua lortzeko.

(...)

“Ez naiz etorri enpresa pribatu batekin polemika izatera. Interesatzen zaidana da herrialde honetan uraren alde eta sistema publikoen alde borroka egin duten gizarte-erakundeek laguntza ematea. Erakunde horien bidezko eskaerak bultzatu nahi ditut, ura berriz ere herriaren esku eta kudeaketa publikoaren esku uzteko”, diosku Daniellek.

(...)



INFO 5

Iturria: http://www.citizen.org/cmep/Water/cmep_Water/reports/bolivia/articles.cfm?ID=9208

Testua egokitu eta itzuli egin da.

Iruzurak: Cochabamba, Bolivia

2000. urteko apirilean desobedientzia zibileko ekintzak eta protestak zazpi egunez egin eta gero, Boliviako lehendakariak behartuta ikusi zuen bere burua Aguas del Tunari enpresarekin (Bechtel erraldoiaren subsidiarioa) ura pribatizatzeke sinatutako kontratua bertan behera uztera. Boliviako gobernuak, 1999an, 40 urteko kontratua eman zion Aguas del Tunari enpresari. Kontratuko baldintzak hain ziren zorrotzak, ezen hurrengo hilabeteetan eskualde guztia altxatu baitzen, eta enpresa kanpora bota zuten.

Uraren tarifak berehala igo ziren, batzuetan % 100etik % 200era. Kolpe latza izan zen nekazari txikiak eta jendearentzat. Hileko gutxieneko soldata 100 dolarrekoa den herrialde batean, familia askok 20 euro edo gehiago ordaintzen zuten uragatik. Uraren prezioei aurre egin ezinik, herritarrek kanpaina bat jarri zuten martxan, urkonpainia pribatua herrialdetik botatzeko.

2000ko urtarrilean, lau eguneko greba orokorra egin zuten uraren prezioen igoeraren aurka protestatzeko. Komunitateetako, lanmunduko eta giza eskubideen alorreko liderrek bultzatu zuten greba, eta kalera atera ziren. Azkenean, erabateko etenaldia gertatu zen. Greba martxoan amaitu zen; protestako liderrak eta hiriko funtzionarioak elkarrekin negoziatzen hasi ziren plaza nagusian. Laster ikusi zuten negoziazioekin ez zirela inora iritsiko. Otsailean, Boliviako gobernuak mila soldadu eta poliziaofizial bidali zituen Cochabambara. Manifestazioak debekatu zituzten eta legez kanpo utzi. Militarrek hiria hartu zuten. Protestak, grebak eta martxak izan ziren garai hartan, 175 pertsona zauritu zituzten. Bi gazte itsu geratu ziren, eta bat hil egin zen. Azkenean, gobernuko ofizialek urkonpainiarekin sinatutako kontratua berriz begiratuko zutela hitz eman zuten. Hala ere, mugimenduko buruek berehala erantzun zuten konpainiarekin kontratua etetea nahi zutela.

Protestak egiten jarraitu zuten, eta, azkenean, apirilean, gobernuak kontratua etetea erabaki zuen. Ura pribatizatzea izan zen Munduko Bankuak atzerriko inbertitzaileei eginiko azken gomendioetako bat. Boliviaren antzeko herrialdeek, hots, zorpeturiko herrialdeek ez dituzte normalean Nazioarteko Moneta Funtseko Munduko Bankuaren gomendioak baztertzen. Izan ere, ez dute nahi mailegurik ez jasotzea nazioarteko laguntza eskatzen dutenean.

Bien bitartean, pribatizazioa dirua lortzeko era eraginkorra da. Gobernuak diru hori Nazioarteko Moneta Funtzarekin edo Munduko Bankuarekin dituen zorrak eta beste hartzekodun batzuekin dituenak ordaintzeko erabiltzen du. (...)

INFO 6

Iturria: <http://webs.ono.com/usr014/jomros/De%20la%20guerra%20del%20agua%20a%20la%20del%20gas.htm>

GOBERNUALDAKETA BOLIVIAN

Uraren gatazkatik gasaren gatazkara

Indigenek baliabide naturalen alde egindako borroka hainbat matxinada ekarri ditu azken hamarkadan Bolivian.

F. RELEA – La Paz
EL PAÍS | Internacional --

Lehenengo Cochabamban hasi ziren urarekin. Andeatako mendiek inguratzen duen 600.000 biztanleko hiria dugu Cochabamba. Hiri horretan, Hego Amerikako naziorik pobreeneko biztanleak



munduko korporazio boteretsuenaren aurka altxatu ziren. Oinarrizko ondasun bat eskuratu zuten: ura. Orain gasarekin gertatu da. Gasa da Boliviari geratzen zaion azken baliabide naturala eta horrek sortu du gatazka. Gatazkaren erroak sakonak dira eta elkarri kontrajarririk dauden gizarte eta garapenereduekin du zerikusia.

Nazioarteko Moneta Funtsak esperimenduak egiteko laborategia izan zen Bolivia, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadan. Izan ere, erakunde horrek gastu publikoa doitzea eta estatuaren enpresak pribatizatzea gomendatu zuen. Gomendio hori kontuan hartu zuen ikasle arduratsua Gonzalo Sanchez de Lozada izan zen, lehen aldiz lehendakari 1993an hautatu zutena. Bi urtean gobernuak estatuko enpresa handienak saldu zituen. Petrolio, telekomunikazioak, aireko lineak, elektrizitatea eta trenbideak pribatizatu zituen.

Eragiketa horiek ez zuten balio izan herritarren bizitza hobetzeko. Herritar asko hasiak ziren El Goni ezizena hartu zuen lehendakariari "aberrisaltzaile" esaten. 1997an, Munduko Bankuak ur sistema jarri zuen pribatizazioen helburutzat. Gobernuari 600 milioi dolar eskaini zion ura pribatizatzearen truke. Horren ondorioz, Kaliforniako Bechtel konpainiak Cochabambako ura kudeatzeko kontratua irabazi zuen. Kontratua 2039. urtera artekoa zen eta lehiaketan partaide bakar batek hartu zuen esku.

Uraren prezioa nabarmen igo zen eta langileek nahiz nekazariak protesta ugari egin zituzten. Greben eta manifestazioen ondorioz, hiria isolatuta geratu zen. Azkenean, gobernuak tarifak berrikusteko akordioa sinatu zuen. Gobernuak konpromisoa bete ez zuenez, berriro egin zituzten protestak, eta, Hugo Banzer hirurogeita hamarreko hamarkadako diktadore militarra gobernura iritsi zenean, protestak areagotu egin ziren. Protesten indarra erabatekoa izan zen. 2000. urtean, Bechtelek alde egin zuen Boliviatik. Uraren kontratua eten zuten eta publikoki kudeatutako beste urkonpainia bat jarri zuten.

Cochabambako departamentuan bazen kokahostoen ekoizle bat, gerora lider garrantzitsu bihurtuko zena: Evo Morales aimara indioa, hain zuzen ere. Evo Moralesek eratu zuen Sozialismorako Mugimendua (MAS).

(...)

INFO 7

Iturria: <http://www.ezln.org/revistachiapas/No14/ch14herbas.html>

Ana Esther Ceceñak Gabriel Herbasekin izandako elkarrizketaren zatia

Uraren gerra Cochabamban

Munduko Bankuak Latinoamerikarako bultzatu dituen pribatizaziopolitiken baitan, Boliviako gobernuak enpresa transnazional bati eman zion, 1999an, Cochabamba hiriko eta inguruko ur guztia kudeatzeko eta banatzeko eskubidea. Enpresa hori Bechtel izan zen; Bolivian bertan Aguas del Tunari izena hartu zuen. Herritarrek zapalkuntzat hartu zuten erabaki hori: kontratua ezkutukoa izan zen iaia (bazuen isilpekotasunklausula bat); ura banatzeko ohiko metodoak bortizki aldatu zituen; tarifak igo zituen, sistemak modernizatzeko inbertsioak herritarrek ordain zituzten (enpresak pribatizazioa bere gain hartzeko ez zuen peso bakar bat ere jarri behar); eta sare pribatua edo komunitarioa elikatzen zituzten putzuak desjabetu nahi zituen. Nolanahi ere, ingurumenaroko adituek, abokatuek, ekonomistek eta uraren gaiari loturiko beste profesional batzuek eraturako talde bat kontratuaz jabetu zen. Kontratua ezagutu nahi izan zuten lehenengo, eta aztertu eta ezeztatu gero. Talde horretan zegoen Gabriel Herbas, Ingurumenaren Cochabambako Foroko ekonomista.

2000ko apirilaren ondoren, beste prozesu bat jarri zen abian. Apirilean hiri osoa altxatu zen uraren pribatizazioaren aurka, eta kabildo irekian erabaki zuten Cochabambak hartuta jarraituko zuela, legea bertan behera utzi arte. Orduan hasi zen, beraz, utopiak eraikitzeko prozesua guztiek bat eginik, landako eta hiriko sektoreek, indigenek eta nekazariak, lantegietako langileek eta langabezia zeudenek, bai eta kaleko umeek ere. Badirudi prozesuak ez duela etenik. Hori baieztatu dute 2002ko hauteskundeek.



(...) Nolanahi ere, baliabidea bera alde batera utzita, Cochabamban gertatutakoa oso interesgarria da, herritarren hainbat sektore bat egiteko gai izan baitziren. Bestelako erakundeak sortu zituzten, erakunde etikoak, horizontalak eta elkarrekiko errespetuzkoak. Gaur egun arte mantendu den uraren eta bizitzaren aldeko koordinakundeak duen aginte moralak gardentasunean, zintzotasunean eta kideen koherentzian eta ordezkartzan oinarritu da.

Dirudienez, Cochabamban uraren alde egindako borrokarekin etorkizun handiko bideari ekin diote. Izan ere, "guk ez dugu bostehun urte itxaroteko behar beste denbora". Hala dio Gabriel Herasek. Horregatik hasi dira ibiltzen.

INFO 8.

Ikuspegi bizia. Korridore hidrikoak eta azpiegiturak. Hedapena.

Egilearen artikulua honetako zatiak, [IIRSA i l'ecologia política de l'aigua sud-americana](http://www.ecoport.net/content/view/full/32258)

Iturria: <http://www.ecoport.net/content/view/full/32258>

(...) Hego Amerikako urerreserbetarako estrategiak eta IIRSA

Hego Amerikako aberastasun naturala txundigarria da. Planetaren lehorreko lehen erreserba biotikoa da eta itsasoko bigarrena. Munduko ur freskoaren % 25 gordetzen du. Horrez gain, besteak beste petrolioputzu ugari ditu Venezuelen (hemisferioko erreserben % 70 gutxi gorabehera: 9), bai eta gasbiltegiak ere, Perun eta Bolivian. Era berean, bestelako mineralak daude eskualde osoan.

Esan dugunez, ardatz hidriko garrantzitsuenak honako ibai hauen adarrak dira: La Plata, Paraná, Paraguai eta Guapore ibaienak, Amazonas eta Putumayo ibaienak, eta Negro eta Orinokorenak. Garrantzitsuak izateagatik nabarmendu beharrekoak dira, halaber, bestelako urerreserbak, Patagonian Mayo eta Rio Gallegos ibaien artean daudenak, esate baterako. Horiez gain, Guarani akuiferotzat ezaguna den lur azpiko urbiltegi erraldoiak ditugu. Horiek dira eskualdeko akuifero garrantzitsuenak eta munduko akuiferorik handiena eratzen dute: 1.190.000 km² inguruko azalera (Espainiak, Frantziak eta Portugalek betetzen duten azalera baino handiagoa). Urgordailuek azalera hauek hartzen dituzte zenbait herrialdetan: 850 mila km² inguru Brasilen (lurraldearen % 9,9), 225 mila km² Argentinan (% 7,8), 70 mila km² Paraguain (% 17,2) eta 45 mila km² Uruguain (% 25,2).

Pentsa dezakezunez, uraren garrantzia erabatekoa da hor ezarri nahi diren garapenerako korridoreei dagokienez (2. mapa).

(...) urak (...) gero eta joera handiagoa du erabilera anitzeko baliabide bilakatzeko. Horren ondorioz, plusbalioa ustiatzeko hainbat eta hainbat era asmatzen dira. (...) Hego Amerika munduko ur gezaren erreserben bostena gordetzen duen eskualdea da. Eragin ekologikoei eta sozialei erreparatu gabe, Hego Ameriketako "korridore hidriko" batzuen eskemak sartzekotan dira, Hego Amerikako Eskualdeko Azpiegiturak Integratzeko proiektuak (IIRSA) ofizialki proposatutako korridoreen atal gisa.

Azken mendeotan argi geratu da korridoreak (eta dagozkien azpiegiturakorridoreak) irudi eraginkorrenak direla—beti ere ikuspuntu kapitalistatik abiatuta—, lurra hartzeko (lurralde-berrantolaketa), lurretik nahiz uretatik salgaiak garraiatzeko eta haiekin salerosketak egiteko, maila handiko industria eta nekazaritza garatzeko, multinazionalen sena duen turismorako tokiak bultzatzeko... Hori dela eta, korridoreak kilometrotan hedatzen diren garapenibildide estrategikotzat hartu behar ditugu. Ibilbide horietan ekoizpen intentsiboko guneak, baliabide naturalak ustiatzeko guneak, garraiobideak, hirien arteko joanetorrietarako bideak eta abar sartzen dira.

Oro har, korridoreak duen nodoitxurako egitura honela dago eratuta: 1) Garraiobideak. Lehengaiak eta salgaiak batetik bestera mugitzeko balio dute. Itsasoko kaiak izan daitezke (Atlantikoko eta Bareko aldekoak). Era berean, lurraldean ezarri ahal diren garraiobideak ere egon daitezke: urkanalak, abiadura handiko trenak, errepideak eta abar. 2) Energia. Korridoreak erabilgarriak izan daitezkeen eta, batez ere, ekoizpentsistemei eragiteko erabiltzen dira, hots, petrolioak, gasa eta elektrizitatea lortzeko (zentral nuklearrak, zentral termoelektrikoak edo geotermikoak, hidroelektrikoak,



linea elektrikoak, gasbideak, petroliobideak eta abar. 3) Ura. Ekoizpenlanetarako beharrezkoa da (presak, ura batetik bestera joanaraztea, akueduktuak, ponpatzesistemak, ura banatzeko sistemak eta ura tratatzeko sistemak...). Hidroelektrizitatea ere sartuta egongo litzateke (3). 4) Telekomunikazioak. Eskualdea denbora errealean sartuko litzateke, bai korridorearen barruko egoerari dagokionez, bai beste korridore batzuekin dagoen harremanari dagokionez, bai eta, oro har, kanpoko harremanari dagokienez ere (zuntz optikoa eta goimailako teknologia duten komunikaziozentroak ezarri beharko lirateke).

(...)

Kasu horretan, ezarpena pixkanakakoa da eta ez da beti "paketetat" aurkezten. Hau da, hainbat neurritako banakako proiektuak aurkeztu ohi dira.

(...)

Latinoamerikako garapenkorridoreak eta korridore hidrikoak

Mapa 1 - Mega proyectos hídricos y corredores de desarrollo



Amerikan hiru toki eta proiektu hidriko erraldoi identifika daitezke korridoreen kokaguneetan (ikus 1. mapa). Bravo ibaiaren iparreak, Estatu Batuetako ekialdeko korridoreak (Mississippi ibaiari erabat loturik daude) eta mendebaldeko eskualde batzuetakoak nabari dira (Kalifornian batik bat). Korridore horietako nahiz Kanada hegoaldeko eta Mexikoko iparraldeko beste korridore batzuetako ureskaera asetzeko, XX. mendearen erdi inguruan Ipar Amerikako Uraren eta Energiaren Plana egin zuten (NAWAPA) (5). Ezin dugu esan plan hori ez litzatekeela berriz ere abian jarriko Estatu Batuetan urkrisialdi larriren bat egongo balitz. Mexikon eta Ertamerikan eten gabe ari dira korridore ugari garatu nahian (zazpi Mexikon, 1995-2000 Hiri Garapenerako Programa Nazionalaren arabera (7)). Azken bertsioa Puebla Panama Plana izenekoa da (PPP). Plan horretako arlo hidrikoari dagokionez, *Aquarium eszenatokia* deritzona dago eta horren bihotza Usumacinta arroko sistema hidroelektrikoa da (Mexiko-Guatemala) (8). Azkenik, Hego Amerikako lurteko beste zazpi korridorek eta bi ubidek osatzen dute korridoreen egitura. Horiek osatzen dute IIRSA, Hego Amerikako Eskualdeko Azpiegiturak Integratzeko sistema. Horko urmu gimenduak honako ibai hauen adarretan



biltzen dira: La Plata, Paraná, Paraguai eta Guapore ibaien adarretan (hor hegoaldetik iparrera doan ubideen korridore bat dago); Amazonas eta Putumayo ibaien adarretan; eta Negro eta Orinoko ibaien adarretan. Azken bi adargune horiek ekialdetik mendebaldera doan korridorea osatzen dute eta bat egiten dute honako hauekin: Macapa eta Belemekin Atlantikoan, Saramerisa eta Yurimagusekin Perun, eta Puerto El Carmenekin Ekuadorren. Horiek guztiek lurreko konexioak dituzte Ozeano Barerantz. Gainera, arreta gehien lortu duen eremua Guarani akuiferoarena izan da. Munduan lur azpian dagoen urereserbarik handiena da. Mercosurreko ekoizpen hidrikoaren eskualde "indartsuentzat" hartu dute.

f0 Ikus dezagun, beraz, Hego Amerikako kasu berezia. Azter dezagun Hego Amerikarako egin diren proiektu hidriko erraldoiak eta eskualde horretarako egindako korridoreekin nola "bateratuko" diren.

INFO 9.

Eduardo Galeano idazlearena. Cochabambako egoeraren kritika isekaria.

Ura. Uraren jabeak.

Hasiera batean, inurriek ez zuten gerri finik.

Halaxe dio Genesiak, Ozeano Bareko Kolonbiako kostaldean ahotan dabilen bertsioaren arabera: inurria biribila zen eta urez beterik zegoen.

Hala ere, Jaungoikoa mundua bustitzeaz ahaztu zen. Hutsegiteaz jabetu zenean, laguntza eskatu zuen. Inurriak ez zion lagundu nahi izan.

Horregatik, bada, Jaungoikoaren hatzek tripa estutu zioten.

Horrela jaio ziren zazpi itsasoak eta ibai guztiak.

Uraren jabeak.

Enpresa batzuk inurri horren antzekoak dira, baina askoz ere handiagoak.

Hogeigarren mendearen amaieran gerrak eztanda egin zuen Cochabamban.

Estatu Batuetako Bechtel enpresak egun batetik bestera tarifa hiru aldiz igo zuenean, komunitate indigenak haranetatik abiatu ziren eta Cochabamba blokeatu zuten. Hiria ere matxinatu egin zen.

Barrikadak jarri zituzten eta uraren fakturek su hartu zuten, Armen plazan.

Boliviako gobernuak balak jaurtiz erantzun zuen, ohikoa denez. Setioegoera, hildakoak, presoak... egon ziren. Hala ere, herriaren altxamenduak bere horretan jarraitu zuen, egunez egun eta gauez gau. Bi hilabetez luzatu zen, harik eta, Cochabambako biztanleen erasoaren ondorioz, ura despribatizatu zuten arte, eta haien gorputzak nahiz lurrak ureztatzeko ura berreskuratu zuten arte.

La Paz hirian, ordea, protestek ez zuten eragotzi ura Suez enpresa frantsesaren esku geratzea.

Tarifa ia zeruraino igo zuten eta inork ere ezin zuen kontua ordaindu. Zergatik ote?, galdetu zuten Europako adituek eta nazioko gobernariak. Argi zegoen: kulturaatzerapenagatik. Pobreak diren boliviarrak, ia guztiek, ez dakite egunean behin bainatu behar direnik, Europan duela hamabost minutu ohitura bilakatu den bezala. Era berean, ez dakite ez daukaten autoa garbitu behar dutenik.



Lehen zatia

Urre urdinaren istorioak

Argibideak

Demagun garapenaren alde lanean ari den gobernuz kanpoko erakunde (GKE) bateko kazetariak zaretela. Urarekin eta munduarekin zerikusia duen gaur egungo gai bat aztertu behar duzue.

Honako hau egin behar duzue:

- Egin itzazue 3ko edo 4ko taldeak.
 - Hautatu zerrendako gai bat.
 - Aztertu gaia Internet erabiliz eta bildu gai horri buruzko informazioa.
 - Labur azaldu gainerako taldeei zer aztertu duzuen.
 - Banaka, gaiarekiko sentsibilizazioa lantzen duen kazetaritzaartikulu bat egin. Jarrai iezaiezue ereduko urratsei.
- ✓ **Internet:** Hitz edo esaldi motzak aukeratu behar dituzue Interneten bilaketak gehien interesatzen zaizuen hizkuntzan egiteko (hizkuntza bilaketa aurreratuen atalean aukera dezakezue).
 - ✓ Hortik Interneten bilaketak egitera joango gara (Google edo Yahooren antzeko bilatzaileak erabil ditzakezue). Irudiak edo informazio gehigarria atera dezakezue.
 - ✓ **Beste hizkuntza batean dauden orriak ere itzul ditzakezue, honako helbide hau erabilita** <http://www.portalcual.com/traductor-gratis.asp>
 - Irudiak eta abar tinta finez inprimatu beti, papera eta tinta alferrik ez galtzeko.
 - Paper birziklatua erabili eta bi aldeetatik inprimatu.
 - ✓ **Gai bakoitzari buruzko bilaketak egiteko zuzeneko estekak eta helbideak emango dizkizuegu.**

Kazetaritzaartikulua egiteko laguntza.

Egin ezazue artikulu argia eta ulerterraza. Egoera jakin bat eta gertatzen ari dena azaldu behar ditu. Egoera hobetzeko zer egin daitekeen edo zer egiten ari diren ere esan behar du.

1. orriaren jarraipena.

Gaizerrenda:

1. URA, HAURRAK ETA OSASUNA
2. NARMADAKO PRESA HANDIA ETA ARUNDHATY ROYKO BORROKA
3. URA GATAZKA ARMATUETAN
4. URA ZAINDU DAITEKE





2 zatia

Urre urdinaren istorioak

1. URA, HAURRAK ETA OSASUNA

ESTEKA

Ikus [Informa zaituz 4: Osasuna eta ura](#) (esteka egin)

Webgune interesgarriak:

http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/wes/explore_1912.html

Uraren eta saneamenduaren arazoari buruz gazteei azaldutako informazio asko dago.

http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/wes/explore_wes.php

http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/wes/explore_1818.html

Osasunarekin eta urarekin lotutako informazio gehiago:

Osasunari eta urari buruzko datu gehiago:

http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/wes/explore_1856.html

Urak sortutako gaixotasunei buruzko informazioa:

http://www.wateryear2003.org/es/ev.php-URL_ID=1600&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

Uraren kalitatearekin zerikusia duten munduko hauren istorioak:

http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/wes/explore_1873.htm

Urak sortutako gaixotasunak:

http://www.expophoteau.ird.fr/les_fleaux/i2_es.htm

<http://www.watertreaty.org/clock.php>



2. NARMADAKO PRESA HANDIA ETA ARUNDHATY ROYKO BORROKA

ESTEKA

Ikus [Informa zaitez 5: Azpiegitura eta ura \(esteka egin\)](#)

Webgune interesgarriak:

Prentsako artikuluak:

<http://www.el-mundo.es/elmundo/2002/10/17/sociedad/1034879163.html>

<http://www.el-mundo.es/especiales/2002/11/cultura/libertad/pag06a.html>

<http://www.mapuche.info/fakta/clarin001119.html>

Informazio gehiago:

http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/wes/explore_wes.php

http://www.unicef.org/voy/spanish/explore/wes/explore_wes.php

(INGELESEZ)

<http://www.narmada.org/>

Narmandako laburpena (ingelesez)

<http://www.narmada.org/introduction.html>

http://rwor.org/a/v23/1140-1147/1140/arundhati%20roy_s.htm

<http://www.foei.org/publications/link/99/s9918.html>



3. URA GATAZKA ARMATUETAN

ESTEKAK

Ikus Informa zaituz 7: Ura, gatazkak eta elkarlana (esteka egin)

Webgune interesgarriak:

<http://www.mapuche.info/fakta/clarin001119.html>

http://www.unesco.org/courier/2001_10/sp/doss0.htm

http://www.unesco.org/courier/2001_10/sp/doss01.htm

http://www.unesco.org/courier/2001_10/sp/doss04.htm

http://www.wateryear2003.org/es/ev.php-URL_ID=5583&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

http://www.wateryear2003.org/es/ev.php-URL_ID=4682&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html

http://www.ub.es/solidaritat/observatori/pau/paula/castella/aigua/estat_aigua_mon/r



4. URA ZAINDU DAITEKE . Uraren kudeaketa jasangarria

ESTEKA

Ikus Informa zaitetz 6: Kontsumoereduak. Uraren erabilera jasangarrirantz (esteka egin)

Webgune interesgarriak:

Greenpeaceren orria:

<http://www.greenpeace.org/espana/campaigns/aguas>

Kofi Annanen mezua:

<http://www.un.org/spanish/events/waterday/2005/>

Gaiarekin lotura duten informazioak:

http://www.enredate.org/enredate/reportajes/historico_de_reportajes/aguabeber/

<http://www.ambientum.com/revistanueva/2005-09/aguas.htm>

<http://www.el-mundo.es/2000resumen/agua.html>

<http://www.mujaactual.com/familia/temas/agua.html>


Beste orri batzuk:

<http://www.barrameda.com.ar/articulo/diamamb1.htm>

<http://www.tierramerica.org/2001/0527/tupuedes.shtml>

<http://www.ciudad.com.ar/ar/portales/chicos/nota/0,1437,42074,00.asp>

<http://www.oei.es/decada/accion06.htm>



Urarekin hartu dugun konpromisoa da...



Maila

DBH

Iraupena

Saio eta erdi.


Helburua

Ura era jasangarrian erabiltzeko ekintzak eta jarrerak eta erantzukizuna elkarbanatzeko balioak bultzatzea.

Laburpena

Guztion artean ura aurrezteko, ongi erabiltzeko... ekintzak hautatzea, eta horren gaineko adierazpena egitea.





Deskribapena

- **Ikus ikasleei emango zaien lanerako fitxa (dokumentuaren amaieran dago)**

- **Hasiera**

Uraren garrantziari buruz hitz eginez hasiko gara. Gaiari hasiera emateko oinarriak honako baliabide hauetan aurki ditzakezue:

- Informa zaitez 3: Uraren krisialdia
- Informa zaitez 6: Kontsumo ereduak. Uraren erabilera jasangarrirantz
- Informa zaitez 8: Milurteko garapenaren helburuak eta ura.

Munduko beste akordio batzuk


- **Informazioa biltzea. Ikasleek informazioa bilduko dute:** Horretarako, hainbat gauza egin ditzakete: elkarrizketak eta informazio liburuxkak irakurri, udalari galdegin.... Era berean, Interneten begira dezakete zuzenean.

- ☛ Gomendagarria da gelan ura aurrezteari buruzko liburuxkak, liburuak eta informazioa izatea.
- ☛ **Internet:** Bilaketa sakonagoa egiteko balio du. Bilaketa egiteko erabiliko dituzuen hitz gakoak zerrenda osatu. Sartu Google, Yahoo edo antzeko bilatzailearen batean, eta idatzi hautatutako hitz gakoak. Komeni da oharrak eskuz hartzea.
- ☛ Orriren bat inprimatu behar baduzue, tinta finez inprimatu, tinta alferrik ez galtzeko.

- **Erabakia hartzea**

Informazioa biltzen amaitu eta gero, guztion artean erabakiko dugu zein ekintza hautatuko dugun, aipatutako guztien artetik, gure eguneroko bizitzan betetzeko.

- ✓ Onena da ados jartzea erabakia hartzeko unean. Guztiok ados ez bazarete, komeni da eztabaidatzea eta, guztion artean, proposamenak bideragarriak direlako akordiora iristea. Hala ere, akordiorik lortzen ez baduzue, proposamenak bozkatu egingo dira.
- ☛ Ez zaitezte saiatu ekintza asko aukeratzen! Hobe da ekintza gutxi, hurbilak eta betetzeko modukoak hautatzea, ekintza ugari eta era askotakoak aukeratzea baino.



- **Adierazpena**

Ohitura onen dekalogo: Aukeratutako ekintzekin, hemendik aurrera beteko ditugun ekintzak jasotzen dituen adierazpen eta horma irudi bat egingo ditugu.

- ☛ Hemendik aurrera beteko dugun konpromisoa gogoraraziko digun logotipoa edo leloa diseina dezakezue.
- ☛ Adierazpena diseinatzean, gogoan izan denbora luzez egongo dela gelan, ikasturtean zehar. Izan ere, horrela hobeto gogoratuko zarete adierazpenaz. Gainera, konpromisoak betetzen ote ditugun berrikusteko erabili ahal izango duzue.
- ☛ Garrantzitsua da egindakoaren berri ematea gainerakoei, hau da, gelako beste kideei, ikastetxeko gainerakoei, familiakoei... Horretarako, ikastetxeko aldizkaria erabil dezakezue, adierazpena egun jakin batean irakur dezakezue, adierazpena korridoreetan jar dezakezue, web orrian jar dezakezue...

- **Berrikuspena**

Oso garrantzitsua da datozen asteetako une jakin batzuk zehaztea, konpromisoak berrikusteko edo balioztatzeko, betetzen ari diren ikusteko, guztiok betetzen ditugun jakiteko, betetzen ez badira zergatik ez jakiteko, zerbait zuzen dezakegun ikusteko...

- ☛ Beraz, noizean behin datuak bildu, zuen konpromisoen segimendu lanak egiteko.
- ☛ Gomendatzen dizuegu hilean behin taldeak konpromisoen berrikuspena egitea.

- **Aholkuak**

Jarduera honetan, oso garrantzitsua da prozesua haurren parte hartzearekin gauzatzea; prozesuak parte hartzailea izan behar du eta haurren proposamenek egin behar dute aurrera.

Helburua da ekintzak egiteko konpromisoa hartzea, ez soilik konpromisoak izendatzea. Beraz, oso garrantzitsua da proposamenak haurrek beraiek egitea, benetan dituzten aukeretan oinarrituta.

Konpromisoa hartzeko, nahitaezkoa da denok parte hartzea erabakian eta adostasun batera iristea; guztiok garrantzitsuak garela sentitu behar dugu. Ekintzak guztion artean erabakita, erantzukizuna partekatzen irakasten ari gara.



Ura zuzenean eta zeharka aurreztea .

EGarrantzitsua da ikustea nola aurrez dezakegun ura zeharka, gure kontsumo-ekintzetan.

Adibide argiena dugu paper zuriaren ordez paper birziklatua erabiltzea.

Hori eginez, zura eta antzeko lehengaiak aurrezten ari gara. Gainera, ur kantitate handia aurrezten dugu: paper birziklatua egiteko 225 aldiz ur kantitate txikiagoa behar dugu!

(tona bat paper birziklatu egiteko, 2 m³ ur behar da; tona bat paper zuri egiteko, berriz, 280 m³ eta 450 m³ bitarte).

Hondakinak birziklatuta, lehengai gutxiago eta energia eta ur kantitate txikiagoa behar ditugu.

Zenbait kirol egiteko ur kantitate izugarri handia behar izaten da: hala nola golfean aritzeko.

Lorategietan ere ur asko aurrez daiteke, tokian tokiko landareak jarrita.

.../....

Kutsadura

Benetako garrantzia du, halaber, ura ahalik eta gutxien zikintzeak (ez da uretara produktu toxikorik bota behar, produktu biodegradagarriak erabil daitezke...).

Zuen adierazpenean, horri buruzko aipamenen bat azaldu beharko litzateke.

Ikastetxeetan, bereziki zaindu behar da laborategia, eta han erabiltzen diren garbitasun produktuak.

- **Gaia sakonago aztertzea**

Ikastetxean urari buruzko ekoikuskaritza egitea.

Oso komenigarria da sakontze-lan gisa, kreditu aldakor gisa, proiektu gisa...

Ekoikuskaritzaren bidez, ikastetxean ura nola erabiltzen den diagnostikatzen da (zer kontsumitzen den, non....). Ekoikuskaritzak non gauden esango digu, eta, hortik abiatuta, uraren erabilera hobetzeko plangintza egin daiteke.

Oso lan interesgarria da. Badira zenbait ikastetxetan egindako bizipenak.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

<http://dgrechid.caib.es/ecoauditoria/materials.es.htm>



Esteka interesgarriak

Ikus ura aurrezteko mapa.

<http://www.elretodelagua.com>

Ura aurrezteko gomendioak:

http://www.unesco.org/science/waterday2000/100_ideas.htm

<http://www.elmundo.es/elmundo/2005/05/06/ciencia/1115393495.html>

<http://www.enbuenasmanos.com/articulos/muestra.asp?art=312>

<http://www.enbuenasmanos.com/articulos/muestra.asp?art=139>

<http://www.internatura.org/educa/agua10.html>

<http://www.asac.es/aigua/cast/8.htm>

<http://www.mujeractual.com/familia/temas/agua.html>

<http://www.terra.org/articulos/art00313.html>

<http://www.asac.es/aigua/cast/8.htm>

http://www.mediambient.bcn.es/cas/web/bcn_aigua_consells.htm

Uraren Kataluniako Agentzia. Aholku praktikoak:

http://mediambient.gencat.net/aca/es//agencia/campanyes/raco/consells_practics_casa.jsp

Ura aurrezteko aholku eta ekintza praktikoak:

<http://www.ecodes.org/agua/ahorraragua.htm#hogar>

http://www.consumer.es/web/es/economia_domestica/hogar/2005/04/14/141178.php

(katalanez) <http://www.xtec.es/centres/b7007300/fmarch/EstalviAigua.htm>



1 zatia

Urarekin hartu dugun konpromisoa da...

Zer iruditzen zaizue lanari ekin eta guztion artean urarekin zer konpromiso hartuko ditugun erabakitzen badugu?

Lehenengo, egoera ezagutu behar dugu

Sar zaitetz hemen:

- Informa zaitetz 3: Uraren krisialdia
- Informa zaitetz 6: Kontsumoereduak. Uraren erabilera jasangarrirantz
- Informa zaitetz 8: Milurteko garapenaren helburuak eta ura. Munduko beste akordio batzuk

Informazioa bildu

Zer egin daiteke ura aurrezten eta gordetzen laguntzeko?

Azterketa sakona egin. Informazioa honako iturri hauetatik har dezakezue:

Elkarrizketak, informazioliburuxkak, udalean galdeginez lortutako informazioa.... Era berean, Interneten begira dezakezue.

- ✓ **Internet:** bilaketa sakonagoa egiteko balio du. Bilaketa egiteko erabiliko dituzuen hitz gakoaren zerrenda osatu. Sartu Google, Yahoo edo antzeko bilatzailearen batean, eta idatzi hautatutako hitz gakoak.
- ✓ Orriren bat inprimatu behar baduzue, tinta finez inprimatu, tinta alferrik ez galtzeko. Orriak alde bietatik inprimatu.

Gai hauei buruzko informazioa aurkitu:

- Nola aurreztu ura komunean
- Nola aurreztu ura sukaldean
- Nola aurreztu ura lorategian
- Nola aurreztu ura eskolan
- Nola aurreztu ura paperarekin
- Zerk kutsatzen du ura? Zerk ez du kutsatzen?

Gai hauek pixka bat aztertu:

- Papera birziklatzea eta ura aurrezte
- Golfean aritzea eta uraren kontsumoa
- Tantaka ari den iturritik ura galtzea
- Pérdida de agua por un grifo que gotea





2 zatia

Urarekin hartu dugun konpromisoa da...

Erabaki zuen konpromisoa zein izango den

Informazioa biltzen amaitu eta gero, guztion artean erabakiko dugu zein ekintza hautatuko dugun, aipatutako guztien artean, gure eguneroko bizitzan betetzeko.

- ✓ Onena da ados jartzea erabakia hartzeko unean. Guztiok ados ez bazarete, komeni da eztabaidatzea eta, guztion artean, proposamenak bideragarriak direlako akordiora iristea. Hala ere, akordiorik lortzen ez baduzue, proposamenak bozkatu egingo dira
- ☛ Ez zaitetzte saiatu ekintza asko aukeratzen! Hobe da ekintza gutxi, hurbilak eta betetzeko modukoak hautatzea, ekintza ugari eta era askotakoak aukeratzea baino.

Zuen adierazpena

- Aukeratutako ekintzekin, hemendik aurrera beteko ditugun ekintzak jasotzen dituen adierazpen bat osatuko dugu.
 - ☛ Hartu dugun konpromisoa gogoraraziko digun logotipoa edo leloa diseina dezakezu
 - ☛ Gainerakoei (gelak, eskola, familiak...) emaezue erabaki duzuenaren berri: horretarako ikastetxeko aldizkaria erabil dezakezue, adierazpena egun jakin batean irakur dezakezue, adierazpena korridoreetan jar dezakezue, web orrian jar dezakezue...
- **Berrikuspena.** Hurrengo hilean, konpromisoak betetzen ari diren aztertu: begiratu ea guztiok parte hartzen duzuen konpromisoa gauzatzen, ea betetzen ez dutenek zergatik ez duten betetzen, zerbait zuzen dezakezuen...
 - ☛ Noizean behin datuak bildu, zuen konpromisoen segimendulanak egiteko.



Urarekin hartu dugun konpromisoa da...

Esteka interesgarriak

Hona hemen lagungarriak izango zaizkizun esteka interesgarri batzuk. Jarri gainean eta egin klik.

<http://www.elretodelagua.com> Ura aurrezteko mapa

- ✓ [Ura aurrezteko mapa](#)
- ✓ [Ura aurrezteko 10 aholku](#)
- ✓ [Ura aurrezteko dekalogoia](#)
- ✓ [Nola aurreztu ura](#)
- ✓ [Ura aurrezteko modu adimentsua](#)
- ✓ [Nola aurreztu ura](#)
- ✓ [Nola aurrez dezaket ura?](#)
- ✓ [Ura aurreztu, ingurumena errespetatuta](#)
- ✓ [Ura aurrezteko 100 ideia](#)
- ✓ [Ura aurrezteko aholku eta ekintza praktikoak](#)

Ura aurrezteko aholku eta ekintza praktikoak

<http://www.ecodes.org/agua/ahorraragua.htm#hogar>

http://www.consumer.es/web/es/economia_domestica/hogar/2005/04/14/141178.php